

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lizarrako Ospitaleak operazio gela berri bat izango du erditzeen gunean


Kutz kontseilaria ospitaleko gune hori berritzeko eta handitzeko obrak ikustera joan da eta Mendazako kontsultategi berria ireki du

Martes, 22 de marzo de 2011

Osasun kontseilaria, María Kutz, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko erditze gunea handitzeko eta birmoldatzeko obrak ikustera joan da. 1.142.500 euroren aurrekontua izan dute; horietatik 42.500 euro obra zuzentzeko izan dira eta 250.000 euro instalazioa hornitzeko. Kontseilariarekin batera izan dira Lizarrako alkatea, Begoña Ganuza, eta Lizarrako Osasun Barrutiko

zuzendaria, Marisa Hermoso de Mendoza. Horren ondoren, Mendazara joan da eta han kontsultategi medikoa ireki du. Kontsultategia eraikitzeko, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 145.328 euroren diru-laguntza eman du. Ekitaldian, halaber, Mendazako alkatea, Javier Ángel López de Dicastillo, eta kontzejuko presidentea, Javier Senosiáin, izan dira.

Ospitaleko lehenengo solairuko erditzeen gunean egin diren obrak operazio gela berri bat egiteko izan dira, guneari atxikitako espazio libre batean. Operazio gelaurrea, oheen aldaketa, garbi eta zikin daudenen lekuak eta aldagelak ere edukiko ditu ondoan. Azalera guztira 138 metro koadro izango dira. Horrez gain, lehendik zegoen erditzeen gunea birmoldatu dute (200 metro koadro): erditzeen gela, haurrak erreanimatzeko gunea, dilatazio gela, sarbideak eta loturak egin dituzte. Beheko solairuko operazioen gunea ere berritu dute: familiei arreta emateko bulego bat eta ZIUko langileentzako atsedengune bat egin dituzte. Obra horiek eginez 28 metro koadro gehitu dira. Guztira, 366 metro koadroko azalera burutu dira jarduerak. Proiektua Construcciones Laguareña enpresak egin du eta Félix Pagola, Chema Prado eta Andrés Trincado arkitektoek zuzendu dute.



Kutz kontseilaria, Marisa Hermoso de Mendoza, Begoña Ganuza eta osasun langileak operazio gela berrian

Mendazako kontsultategia

Mendazako kontsultategi berria lehen herri bereko eskolak ziren eraikinean egin dute; Victor Eusa izan da eraikina diseinatu duen arkitektoa. Eraikina egokitzeko obrak egin behar izan dira eta, horretarako, Osasun Departamentuak 145.328 euroko diru-laguntza eman zion Mendazako Udalari. Zenbateko horretatik, 132.165 euro eraikina birmoldatzeko erabili dira eta 13.163 euro oro har eraikina hornitzeko, klinikako altzariak eta seinaleak jartzeko.

Kontsultategiko instalazioen azalera osoa 138 metro koadro eraiki da eta mediku orokorraren kontsulta gela bat, erizaindegi bat, itxaron gela bat, komunak eta biltegia ditu. Mendazako kontsultategia Lizarrako Osasun Barrutiko Antzin-Ameskoa Oinarrizko Osasun Barrutira atxikita dago. 508 osasun txarten ditu esleituta eta mediku orokor batek eta erizain batek eskaintzen dute arreta.



Kutz kontseilaria, udaleko agintariak, osasun langileak eta Mendazako biztanleak kontsultategi berriaren ondoan